



4 BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Alarma Egoeraren 4. eguna. 2020ko martxoaren 19a, osteguna.

Asteazkena hilak 18ko Kudeaketa / Ekintzak

ERAKUNDEEI EGINDAKO ESKAERAK ETA BEHARRAK

Gaur funtsezko eguna izango da bizileku-baliabiderik ez duten pertsona askorentzat. Udalak, Anoetan, Atano pilotalekua atontzeko asmoa du, gaur, 100 lagunentzat. Atzo, asteazkena, Ondarretako La Sirena aterpetxean 20 pertsona sartu ziren. Harrera Sareak, gizarte zerbitzuek eskatuta, bi boluntario ekarri zituen gaueko txanda indartzeko. Ildo beretik, boluntario gehiago eskatu dizkigute, eta bihar azalduko dizkigute bete beharrak, haien eskuragarritasuna eta abar. Eskaera hori sarearekin lankidetzan aritzeko prest daudenei helarazi diegu.

Baliabide hau, alderdi guztietan, zertan zehazten den ikusteko itxaron dezagun, ondoriozko egoera zein den baloratu ahal izateko. Nolanahi ere, pertsona hauek honaino iristeko jasaten ari diren guztiak gorabehera, elkar-zoriontzea besterik ez dugu, neurri batean, beren oinarrizko premiak aseta dauzkatelako. Eta horretarako, herritarren presioa, hedabideen ahotsa eta gizarte-langileen inplikazioa funtsezkoa izaten ari dira erakundeek baliabideak gaitu ditzaten. Caritasek, bere aldetik, erabaki du Hotzaldin gaua pasatzen duten 42 lagunek egun osoan egon ahalko eta beharko dutela eta bazkaria eta afaria ere eskainiko zaiela, Aterpen dauden 22 erabiltzaileek bezala.

Gosea. Atzokoa jardunaldi nekagarria izan zen, egunetik egunera handiagoa den elikagai gabezia bete nahian. Ez dugu ulertzen zergatik ez den martxan jarri, lehenengo egunetik, janari poltsak emateko banaketa-gune bat edo batzuk. Antolatzea ez da batere zaila. Nahikoa da erakundeak gastu hori bere gain hartzea erabakitzea, dagokion catering enpresa kontratatzea eta banaketan langile gutxi batzuk jartzea. Zerbitzu hori ez da aurreikusten, beraz, Sareak bezalako boluntario-erakundeek, herritarren ekarpen solidarioetan soilik oinarritzen direnak, beren gain hartu behar dituzte. Baina jakina, gaur egungo baldintzetan, mugimenduen eta eskuragarri dagoen jendearen mugarekin, eromen txiki bat izaten ari da. Ordainetan egun horretan bazkaltzeko aukera izango dutela ikusten duten pertsonen esker oneko aurpegiak. Eta, elikagaiei dagokienez, borondatezko ekarpenekin (atzo 700 €gastatu genituen janarian) eta ostalaritza-establezimendu eta partikularrek emandakoarekin moldatzen ari gara. Atzo ere, SOS Arrazakeriaren bulegoaren sarreran, polizia eta bizilagun batzuen aldetik jada ohiko bihurtu diren trabak jasan behar izan genituen. Poliziaren presentzia etengabea da; patruila bat joan eta gutxira, beste bat iristen da. Esango dugu, halaber, bizilagun bat espresuki hurbildu zela eta bere laguntza eta erreferentzia eskaini zigula, baita laguntza juridikoa ere, behar badugu, abokatua baita. Auzokide batzuen jarrera gaitzesgarri hori ezin da orokortu.

Hotza. Mantei dagokienez, nahikoa ondo goaz, baina orain hiru koltxoi behar ditugu.



4 BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Kontrolak. Dagoeneko aipatu ditugu bulegora elikagaiak jasotzera edo sakelakoak kargatzera hurbiltzen direnekin dauzkagun trabak. Gazte batzuek ziegara sartzeko eskatzen zieten, gutxienez lo egiteko lekua izango zutelako.

Atzo jakin genuen gazteetako bati Ertzaintzak esan ziola 600 euroko isuna jarri ziotela, baina isun-paperik ematen ez ziotenez, mehatxu/presio bat zela pentsa dezakegu. Bestalde, Ertzaintzak astearte goizaldeko bostetan gazte bat bota zuen bizi zen etxetik abandonatutik, eta atzo beste bi.

Komunikazioa. Hainbat hedabidek kontsultatzen gaituzte, eta haien kroniketan gertatzen dena islatzen dute. Hau oso garrantzitsua dela uste dugu, dugun arazoa zabaltzea eta isiltasunean lurperatuta ez geratzea. Atzo Berrian eta Onda Cero-ko tartetan egon ginen.

3. Buletina sareetan eta hedabideetan zabaldu da.

Gainontzeko entitateekin eta baita SMUSarekin ere koordinazio eta informazio elkartruckerako harreman estua mantentzen jarraitzen dugu.

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Ekarpen ekonomiko solidarioari dagokionean, atzoko diru-ekarpenekin jada 105 lagun dira lau egunetan 5.037 € sartu dituztenak.

Ostalarien partetik egunero jasotzen dugun laguntzari dagokionez, bereziki Gandarias (konstantzia miresgarria duena) eta Pandora (atzoko porrusalda eta etxeko esne-gozokidun txokotarta gaindiezina zegoen), atxo Oialume sagardotegiak egindako elikagai dohaintza jaso genuen.

Mugikorrak eta 3 koltxoi behar ditugu.

Sukalde bat jaso eta entregatu dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiogu arnasa hartzeko ezinbestekoa den eta hazten jarraitzen duen herritarren inplikazioari.

Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 672 95 20 66 / 675 71 53 15

Ekarpenak: cc ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABAL EZAZU, helarazi zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.